ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUA, BASERRI-BIDEETAKO, BASO-PISTETAKO, OSPITALE ZAHARREKO, SANTAMARINAZAR GAINEKO ETA KIROLDEGI INGURUKO SASITZAK GARBITZEKO. NEGUKO ELURTEEN ETA LEIEN OSTEAN ZALDIBARKO KALEAK ATONTZEKO ETA UDALERRIKO HAINBAT TOKITAKO ZUHAITZAK INAUSTEKO.

PROZEDURA: IREKIA

ESLEITZEKO MODUA: LEHIAKETA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN IZAERA ETA XEDEA

A. XEDEA

Plegu honen helburua: baserri-bideetako, baso-pistetako, ospitale zaharreko, Santamarinazar gaineko eta kiroldegi inguruko sasitzak garbitzeko. neguko elurteen eta leien ostean Zaldibarko kaleak atontzeko eta udalerriko hainbat tokitako zuhaitzak inausteko zerbitzua kontratatzea.

Zaldibarko udalerriak landa- eta udal-bideen sare zabala du, biztanleguneak eta baserriak udalerriko gainerako bide-sarearekin komunikatzeko. Horretarako, beharrezkoa da bide-bazterrak, ezpondak eta arekak garbitzea eta sastrakak kentzea, bideen ikuspena eta segurtasuna hobetzeko.

Halaber, elurra eta izozteak egonez gero, udal bideetan elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko beharra ere jasotzen da.

Eta udalerriko hainbat lekutan zuhaitzak inausi beharra daukagu.

Udalak ez duenez baliabide teknikorik eta giza baliabiderik deskribatutako lanak egiteko, beharrezkotzat jotzen da enpresa espezializatu bat kontratatzea lan horiek egiteko.

Kontratua baldintza teknikoen agiriari zorrotz lotuta gauzatuko da, kontratu-izaera izango duen espedientean agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera eta baldintza teknikoen agirian eta agiri honetan agertzen diren ezaugarrien arabera..

Esleipenerako, zerbitzua jarraian adierazten diren loteetan banatzen da, eta lote bat, batzuk edo guztiak aurkeztu ahal izango dira.

1. LOTEA.- BASERRI-BIDEETAKO, BASO-PISTETAKO, OSPITALE ZAHARREKO, SANTAMARINAZAR GAINEKO ETA KIROLDEGI INGURUKO SASITZAK GARBITZEKO eta NEGUKO ELURTEEN ETA LEIEN OSTEAN ZALDIBARKO KALEAK ATONTZEKO ZERBITZUA

2. LOTEA.- UDALERRIKO ZENBAIT TOKITAN ZUHAITZAK INAUSTEA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluaren arabera, zerbitzu-kontratua da honako hau, jarduera baten garapena dakarrelako edo obra/hornidura baten ondorioz datorren emaitza barik, beste bat lortu nahi duelako. Zerbitzua jarraian exekutatzeko esleipendunak bere gain hartzen dituenak sartzen dira hor, banakako prezioen arabera.

Kontratua kodetzeko eta sailkatzeko, kontuan hartu behar da:

- Kontratuaren xederako dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa:

  CPV kodeak, 1. Lotea:

  - 77312000-0.- Sasiak garbitzeko zerbitzua
  - 90620000-9 – Elurra kentzeko eta garbitzeko zerbitzuak

  CPV kodeak, 2. Lotea:

  - 77341000-2.- Zuhaitzak inausteko zerbitzuak

B. B. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu administratiboa da, zerbitzu-kontratu baten izaera daukana, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat etorriz. Ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoa izan behar da: Lege horren beraren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzeko den maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren (aurrerantzean 817/2009 ED) arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onartzeko den urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera (HAKLEO), 2017ko SPKLaren kontra ez doan guztiaren arabera eta ezarri dakizkiokeen bestelako xedapenen arabera.

Administrazio Baldintza Zehatzen Plegua kontratu izaera dauka, beraz, derrigorrean bete beharrekoa, 2017ko SPKLren 188. eta 189. artikuluekin bat etorriz.

C. C. KONTRATAZIO-ORGANOA:

Kontratazio organoak 2017ko SPKLaren 190. artikuluan aurreikusitako prerrogatibak ditu, eta bere jarduna 191.artikuluaren mende dago. Prerrogatiba horiek betetzean hartzen dituen erabakiek administrazio-bidea agortzen dute eta segituan betearazi beharrekoak dira.

D. D. JURISDIKZIOA

Kontratu honi buruzko interpretazioei, aldaketei, ebazpenei eta ondorioei buruz sortu litezkeen auzigaiei gaineko aginpidea daukan juriskidzio ordena: administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.

E. E. ESLEIPENA EGITEKO MODUA:

Prozedura ireki bidez, 2017ko SPKLaren 156. artikulutik 158. artikulura arte arautua; kontratu hau EZ dago erregulazio harmonizatuaren mende, kontratuaren gutxi gorabeherako balioa 214.000 eurotik beherakoa delako (22.1.b artikulua).

Era berean, kontratua lehiaketa bidez esleituko da, esleitzeko hainbat irizpide erabiliz, kalitate-prezioaren arteko eskaintzarik onenaren irizpidea oinarri hartuta. (131 artikulua) 2)

2. EXEKUTATZEKO EPEA

a) a) Kontratuaren iraupena

Kontratua iraupen-epea hauxe da: URTE BIKOA (2), kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita.

b) b) Luzapena

Epe hori beste BI (2) URTERAKO luzatu daiteke, jarraian bi luzapen eginda (urte 1+urte1) SPKLren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontratuaren ezaugarriak aldatu barik luzapen-denbora horretan. Hala ere, aldaketak egin dakizkioke, Legearen 203. artikulutik 207. artikulura artean ezarritakoarekin eta plegu honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bi luzapenok kontratazio-organoak erabakiko ditu eta enpresaburuak derrigor bete behar du, baldin eta abisua gutxienez bi hilabeteko aurretiaz jasotzen badu, kontratua bukatu baino bi hilabete lehenago, alegia.

Ez da inola ere luzatuko aldeen isilbidezko adostasunez, eta bi luzapenetako bakoitzak berekin dakar kontratua izenpetu beharra, egiten bada.

Hemen aipatzen den kontratuaren luzapenak ez du ezertara behartzen kontratista, baldin eta kontratua suntsitzeko 198.6 artikuluan jasotako kasuak gertatzen badira, Administrazioak sei hilabetetik gora atzeratu bada prezioa ordaintzen.

3. KONTRATUAREN PREZIOA: LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

A.- Kontratuaren hasierako aurrekontua HIRUROGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA LAU ZENTIMO (61.966,04€) da, kontratuaren BI (2) urtekoei dagokien zenbatekoen batura.

HOGEITA HAMAR MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA BI ZENTIMO urtean (30.983,02€/urtean). Zenbateko horren barruan dago BEZa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen urriaren 8ko 9/2017 Legearen 100.1 artikuluan ezarrita dagoenarekin bat etorriz.

B.- Aurrekontua honela dago banakatuta:

1. LOTEA.- BASERRI-BIDEETAKO, BASO-PISTETAKO, OSPITALE ZAHARREKO, SANTAMARINAZAR GAINEKO ETA KIROLDEGI INGURUKO SASITZAK GARBITZEKO eta NEGUKO ELURTEEN ETA LEIEN OSTEAN ZALDIBARKO KALEAK ATONTZEKO ZERBITZUA

1.- Bide-bazterrak sasiz garbitzeko

Lizitazioaren urteko prezioa (zerga oinarria): ..... 16.605,80 €.
BEZ (%21) ..... 3.487,22€
Urtean guztira (kontratuaren urteko prezioa):..... 20.093,02 €
Lizitazioaren urteko prezioa (zerga oinarria): ..... 33.211,60 €
BEZ (%21) ..... 6.974,44 €
GUZTIRA- Lizitazioaren prezioa:..... 40.186,04 €

2.- Udal bideetan elurra kendu eta gatza zabaltzeko:

Lizitazioaren urteko prezioa (zerga oinarria): ..... 5.000,00 €
BEZ (%21) ..... 1.050, 00 €.
Urtean guztira (kontratuaren urteko prezioa):..... 6.050,00- €
Lizitazioaren urteko prezioa (zerga oinarria):..... 10.000,00.- €
BEZ (%21) ..... 2.100,00.- €
GUZTIRA- Lizitazioaren prezioa:..... 12.100,00.- €

2. LOTEA.- UDALERRIKO ZENBAIT TOKITAN ZUHAITZAK INAUSTEA

Lizitazioaren urteko prezioa (zerga oinarria): ..... 4.000,00€
BEZ (%21) ..... 840,00- €
Urtean guztira (kontratuaren urteko prezioa):..... 4.840,00€
Lizitazioaren urteko prezioa (zerga oinarria):..... 8.000,00.- €.
BEZ (%21) ..... 1.680,00.- €
GUZTIRA- Lizitazioaren prezioa:..... 9.680,00.- €

C) Beheranzko eskaintzek gehienezko honako lizitazio-tasa hau izango dute, BEZ salbuetsia:

Urteko gehienezko lizitazio mota, BEZ salbuetsita	urte 1
1. lotea.-	21.605,80
2. lotea.-	4.000,00
Guztira	25.605,80

Lizitatzaileek ezingo dute gainditu lizitazio osorako eta lote bakoitzerako ezarritako urteko gehieneko lizitazio-tasa. Zifra horiek dira beheranzko eskaintzek izango duten gehieneko zenbatekoa.. Horrenbestez, beste barik kanpoan geratuko dira lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik gorako prezioak dituzten eskaintzak.

Horrenbestez, beste barik kanpoan geratuko dira lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik gorako prezioak dituzten eskaintzak.

Kontratuaren gehieneko prezioa zerbitzu bakoitzaren gehieneko prezio unitarioen eta kontratuaren iraupen-urtean egin beharreko zerbitzuen gutxi gorabeherako kopuruaren arabera zehaztu da, aurreko hilabeteetan eman diren zerbitzuak eta horietako bakoitzaren merkatuko ohiko prezio unitarioa kontuan hartuta, baldintza teknikoen agirian jasotzen den bezala.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (publizitatea, prozedura,...), kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatu behar da.

Balio hori preziotik abiatu behar da, luzapenak barne, BEZa kenduta; beraz, (102.423,20.- €), urtean 25.605,80 euro bider 4 urteko balizko epea eginda, bi luzapen eginez gero.

Halaber, kontratua aldatzeko aukera dagoenez, kontratuaren xedea % 20 handituz edo murriztuz, zenbateko hori % 20 handitu beharko da, kontratuaren balio zenbatetsia EHUN ETA HOGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA LAU ZENTIMO (122.907,84 €) gehituz, luzapenak eta egin daitezkeen aldaketak barne.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren aurrekontu-urteak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa honako hauek dira:

Kontzeptua	Partida	2021. urtea	2022. urtea	2023. urtea
SASIAK GARBITZEA	454/210.06	10.046,51	20.093,02	10.046,51
NEGUKO ZERBITZUA	1532/210.05	3.025,00	6.050,00	3.025,00
INAUSKETA	171/210.04	2.420,00	4.840,00	2.420,00

Aurrekontu arloko organo eskudunak konpromisoa hartuko du eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan kreditu egokiak gordetzeko.

Kontratuaren exekuzioa baldintza baten pean dago: kontratuak betebeharrei aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa izatea dagokion ekitaldian.

6. ZELAN ORDAINDU

Prezioa ordaintzea: esleipena hartzen duen erakundearen edo pertsonaren eskubidea eta Zaldibarko Udalaren betebeharra.

Kontratua hartzen duen pertsonak edo erakundeak eskainitako zerbitzuak kobratzeko eskubidea dauka honako hauek oinarri hartuta: Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikuluan jasotakoak.

Sastrakak kentzeko eta bide-ertzak garbitzeko lanak bi fakturatan ordainduko dira: bata maiatzetik ekainera bitartean, eta bestea irailetik urrira bitartean.

Neguan elurra kentzeko eta gatza pasatzeko lanak hilero ordainduko dira, esleitutako unitateko prezioen eta gauzatutako lanaldien arabera. Neguko lanaldiak benetan lan egindako egunen arabera ordainduko dira. Lanaldiak ez badira osoak edo 8 ordutik gorakoak badira, modu proportzionalean ordainduko dira, Udalak entregatutako eta baliozkotutako eguneroko parteen arabera.

Lanak egin ondoren ordainduko dira inausketa-lanak, aldez aurretik deskribapen-txostena eginda eta udaleko zerbitzu teknikoek dagokion faktura onartuta.

Fakturak formatu elektronikoan facturae 3.2 edo 3.2.1 formatua) aurkeztu behar dira, Udalaren web-orrian (www.zaldibar.eus) faktura elektronikoetarako dagoen sarrera atalaren bidez. Faktura elektronikoen gainean indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete behar dituzte fakturek.

Fakturak aztertu eta udal zerbitzu teknikoek kontratatutako zerbitzua zuzen eman dela edo ematen ari dela egiaztatu ondoren, fakturak legez ezarritako epeen barruan ordaintzeko proposamena egingo da.

Zerbitzu teknikoek faktura edo obra egiaztagiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egun baliodunen barruan ordaindu behar dira fakturak. Atzeratuz gero, hogeita hamar eguneko epe hori igarota, berandutze-interesak eta kobratzeko kostuen kalte-ordainak ordaindu behar zaizkio kontratistari, abenduaren 29ko 3/2004

Legean aurreikusita dagoen moduan, artikulu horretan jaso baitira merkataritza eragiketetan gertatzen den berankortasunaren aurkako neurriak.

Ordainketa lau hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak etenda utz dezake kontratuaren betearazpena; baina administrazioari jakinarazi behar dio hori, hilabete lehenago, etenaldi horretatik sor daitezkeen eskubideak onar daitezen (198.5 artikulua).

Administrazioa sei hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak kontratua suntsiarazteko eskubidea ere izango du, baita horren ondorioz sortutako galeren kalte-ordainak jasotzeko ere. (198 artikulua) 6)

Kontratistak ez dauka kontratuak dakartzan eskubide eta betebeharrak inori lagatzerik Zaldibarko Udalaren baimen barik; horrek ez du kentzen Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 8ko 9/2017 Legearen 200. artikuluan aurreikusitakoa, kobratzeko eskubidea lagatzeari dagokiona.

Esleipendunak ez dauka kontratuaren zati bat beste bati ematerik, bigarren mailako kontuetarako ez bada. Salbuespena: eskaintzan bertan hala jakinarazi bada, iragarkian datorren moduan, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 8ko 9/2017 Legearen 215. artikuluarekin bat etorriz. Azpikontratatuz gero, 216. artikuluan datorrena ezarriko zaio (esleipendunaren betebeharrak eta azpikontratatutakoekin dauden betebeharren fiskalizazioa).

7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dago aukerarik prezioak aztertzeko, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 8ko 9/2017 Legearen 103. artikuluarekin bat etorriz.

8. BERMEA

a) Behin-behineko bermea

Urriaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 106.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lizitatzaileak ez dauka behin-behineko bermerik aurkeztu beharrik, ez baita interes publikokoa.

b) Behin betiko bermea

Esleipendunak eskainitako azken prezioaren 100eko 5eko bermea eratu beharko du, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, kontratazio-organoaren eskura, SPKLren 150.2 artikuluan adierazitako epean. Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez badu, Administrazioak ez du bere aldeko esleipena egingo, eta 150. artikuluko 2. paragrafoko azken aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

c) Onartu daitezkeen bermeak

2017ko SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea.

d) Bermearen gaineko gorabeherak

Kontratistari eska dakizkiokeen falten zigorrak edo kalte-ordainak exekutatzeko behin betiko bermea erabiltzen bada, kontratistak berriro ipini beharko du edo lehengoa handitu, unean-unean behar den kopuruaren arabera, exekutatu eta hamabost eguneko epean. Egin ezean, kontratua suntsitzeko aukera egongo da.

Baldin eta kontratua aldatu delako kontratuaren prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, prezio berriaren eta bermearen artean dagokion proportzioa egon dadin. Ildo horretatik, ez dira prezioaren aldaketatzat hartuko prezioaren berrikuspenaren gainean sortutakoak, Liburu honen III. tituluko II. Kapituluarekin bat etorriz.

e) Erantzukizunak, bermeari eragiten diotenak

Behin betiko bermeek soilik honako kontzeptu hauei egin beharko diete aurre:

1. Kontratua epe barruan formalizatzeko betebeharra, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
2. Kontratistari ezarritako zigorrei erantzuteko, 2017ko SPKLren 192. artikuluarekin bat etorriz.
3. Kontratuan jasotako zerbitzu guztiak ondo betetzeko eginkizuna, kontratistak proposatutako hobekuntzak barne, kontratazio organoak onartuz gero; Kontratistak bere eginkizunak betetzen atzeratu eta horrek Administrazioari eragindako gastuak; kontratua exekutatzerakoan edo kontratua ez betetzeagatik Administrazioari eragindako kalteak, kontratua suntsitzera heldu barik.
4. Kontratua suntsituz gero, dekretatu daitekeen konfiskatzea, kontratuan bertan edo Legean ezarritakoarekin bat etorriz.
5. Eskainitako zerbitzuetan kontratuan aurreikusitako berme-epearen barruan izan ez diren akatsak.
6. Kontratuaren xedean enplegatutako pertsonen soldatei edo gizarte-segurantzako gastuei dagozkien zenbatekoak

f) Behin betiko bermea itzultzea eta ezereztea

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko, harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

Kontratuaren kitapena onartu ondoren, eta berme-epea igarota, erantzukizunik agertzen ez bada, bermea itzuliko da edo abala zein kauzio-asegurua ezereztuko da.

Bermea ez itzultzeko, erantzukizuntzat hartuko da kontratuaren xedean enplegatutako langileek erreklamazio judiziala jasotzea edo erreklamazio judizialaren berri izatea, gizarte-segurantzako soldata edo gastuengatik.

Bermea itzultzeko erabakia berme-epea amaitzen denetik bi (2) hilabete pasatu baino lehen hartu behar da, bai eta interesdunari jakinarazi ere. Epe hori amaitutakoan, zor zaion zenbatekoa ordaindu beharko dio Administrazioak kontratistari, berme-epea amaitu zenetik bermea itzuli arteko aldiari dagozkion diruaren legezko interesak gehituta, baldin eta bermea ez itzultzeko arrazoia Administrazioari egotz badakioke.

Kontratuen lagapena egiten denean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

Kontratua amaitzeko epea amaitu eta, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, urtebete igarota ez bada harrera-egintza formalik ez likidaziorik izan, bermeak itzuliko dira, edo ezereztu egingo dira, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren.

9. KONTRATUA EXEKUTATZEA

a. Arrisku eta mentura

Kontratua gauzatzea kontratistaren arrisku eta zorira egingo da.

b. Kontratua betetzea

Kontratua egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotzi ahal zaion egintza edo ez-egite baten ondorioz kontratuaren gauzatzea arriskuan jartzen bada, Administrazioak kontratua behar bezala gauzatzeko edo gauzatzea onbideratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du.

Kontratistaren erantzukizun izango dira berak gauzatzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzerakoan izandako hutsegite edo hutsuneetatik, edo metodo desegoki edo ondorio okerretatik Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat sortzen diren ondorioak.

c. Betebeharrak: fiskalitatea, ingurumena babestea, enplegua eta lan baldintzak eta ezgaitasuna duten pertsona kopuru jakin bat kontratatzea.

Lan arloan, gizarte segurantza arloan, ezinduen gizarteratze arloan eta lan-arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia bete behar du kontratistak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean, lege hori arautu eta garatzeko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

d. Kontratuaren erantzulea

Kontratuaren arduradunari –udal arkitekto teknikoari- dagokio kontratuaren exekuzioa zaintzea, hartu beharreko erabakiak hartzea eta eman beharreko instrukzioak ematea, adostutako zerbitzua behar den moduan eskainiko dela ziurtatzeko, beti ere, eman dizkioten aginpideen mugan.

e. Hizkuntza araudia betetzea

Ezinbesteko betebeharra izango da zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz ematea, eta zerbitzuaren emaitza den dokumentazioa bi hizkuntzetan prestatzea.

Era berean, zerbitzua ematean, administratuek aukeratzen duten hizkuntzan artatuak izateko duten eskubidea bermatu beharko da.

10. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

1.- Enpresa esleipendunak kontratatu beharreko langileak kontratatu behar ditu bere gain hartu dituen eginkizunei erantzuteko. Langile horiek esleipendunaren menpe egongo dira, eta haren menpe baino ez. Esleipendunak indarrean dauden lege xedapenak bete behar ditu: lan arloko legedia, gizarte segurantza arlokoa, laneko segurtasun eta higieneari buruzkoa eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoak. Administrazioak ez du ezelango erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Esleipena hartzen duen enpresako langileek ez dute sekula lan-harremanik izango Zaldibarko Udalarekin, ez lan-kontraturik, ez funtzionario izaerakorik ez bestelakorik; ez kontratuan zehar, ezta kontratua amaitu ondoren ere.

2.- Kontratistak zerbitzua behar den moduan eskaini ahal izateko behar diren ekipo eta bitarteko osagarriak ekarri behar ditu. Administrazioak atzera bota ditzake desegokiak iruditzen zaizkion gailuak.

3.- Kontratistak, hileko fakturarekin batera, udal-bulegoetan aurkeztu behar du era sinesgarrian kontratu honi atxikita dauden langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta dituela.

4.- Udal zerbitzu teknikoek eskatuz gero, esleipendunak kontratuaren xede den zerbitzuaren gaineko txostenak eta ikerketak aurkeztu behar ditu, baita argazki-erreportajeak ere.

5.- Kontratistak administrazio kontratatzaileari eskuragarri jarriko dizkio, dagokionean, eta gastu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko beharrezko jotzen diren zerbitzu profesionalak, hala nola, azalpen bileretara joatea, informazio-panelak, eta abar.

6.- Udalaren aginduei men egin ezean, gaitasunik eza edo zabarkeria larria agertuz gero, eta lanak konprometitu edo asaldatuz gero, Udalak kontratistari eska diezaioke nahasmena eragin duten langileak zerbitzutik kanpo uzteko. Kanpo uzte horrek kaleratzea badakar, esleipendunak ordaindu beharko dizkio ordaindu beharreko kalte-ordainak.

7.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

A.- SOZIALAK

- Hitzarmena: enpresak edo pertsona esleipendunak arlo horretako hitzarmena ezarri behar du derrigorrean. Baldintza horiek langile guztiei ezarri behar zaizkie, gaur egun lanean ari direnei zein bihar-etzi kontratatzen dituztenei. Langileen baldintzak osorik mantendu behar dira betiko.

B.- EKONOMIKOAK / ZERBITZUAREN KALITATEAREN KONTROLARI BURUZKOAK

Baldintza-agirietan adierazitako baldintzetan itundutako zerbitzua ematetik eta indarrean dagoen legeria aplikatzetik eratortzen direnak alde batera utzita, erakunde esleipendunak honako betebehar hauek ditu:

- Zerbitzua modu erregularrean eta jarraituan ematea; ezin izango da inola ere zerbitzua eten, kontratazio-organoak berariaz eta interes publikoko arrazoi justifikatuagatik hala erabakitzen duenean izan ezik.

- Zerbitzua ematearekin lortutako emaitzei buruzko txostena Udalari aurkeztea kontratuaren iraupena amaitzean, udal-administrazioak etengabe ikuskatzeko duen ahalmena aparte utzi gabe.

C.- INGURUMENEKOAK

Enpresa kontratistak, kontratua betetzen hastean, ingurumen-arloko betebeharrak betetzeko hartuko diren neurriak jasotzen dituen memoria bat egin beharko du.

Zerbitzuak exekutatzeko lan guztietan irizpide hauek bete behar dira:

- Zerbitzuak emateko behar den ur-kontsumoa gutxitzeko eta berrerabiltzeko neurriak ezarriko dira.

- Eragozpenak eragin ditzaketen zarata eta dardarak gutxitzeko beharrezko neurriak egokituko dira, eragozpen horiek eragiten dituzten lanak herritarren atseden-ordutegiekin bateragarriak diren ordutegietan eginez eta, betiere, zaratari buruzko araudi espezifikoa errespetatuz.

- Sor daitezkeen hondakinak indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera tratatu beharko dira.

- Ingurune atmosferikoa eta baliabide naturalak (ur-ibilguak, baso-masak) barne hartzen dituen kutsadura saihestuko da. Eta kontratua gauzatzeagatik kaltetu daitekeen beste edozein ondasun.

7.4 SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresa kontratistak zerbitzua gauzatzean bere kargura dauden langileen segurtasuna eta osasuna behar bezala babesten direla bermatu beharko du.

11.- GASTUAK ETA ZERGAK, KONTRATISTAREN KONTURAKOAK

Lizitatzaileek aurkeztutako proposamenetan zein esleipen-aurrekontuetan sartuta egon behar dira honako hauek: gastu orokorrak, finantza-gastuak, aseguruak, garraioak, joan-etorriak, materialak, arropak, instalazioak, euren ardurapeko langileen lan-sariak, tasak eta zergak, kontratutik eratorritako betebeharrak, industri onura eta BEZ, zerbitzu horri zeharkako zerga hori ezarriko balitzaio.

12.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

A. BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTE-GALERAK DIRELA ETA

Kontratuaren exekuzioa esleipendunaren arrisku eta menturaren arabera egingo da (2017 SPKL, 197. artikulua), mugen eta erantzukizunen barruan (2017 SPKL, 196. artikulua), eta ezertan galarazi gabe 239. artikuluan datorrena.

Kontratista izango da zerbitzua burutzeko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalte eta galera guztien erantzulea, 2017ko SPKLaren 238. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horretarako hauxe ekarri behar du: aseguru polizaren kopia bat eta hori ordainduta dagoela ziurtatzen duen agiria, kontratuaren berezko arriskuak ordainduko dituena, eta bereziki inori eragindako kalteengatik eta esleipendunaren aldi baterako zein betiko langileen ekintzetan , makinen eta tresnen erabileran, nahiz esleipenaren xedeko zerbitzua ematerakoan burututako lanetan sor litezkeen kalteengatik eratorritako erantzukizun zibila.

Kalte edo galerak Administrazioak emandako aginduren baten ondorioz zuzenean eta berehala gertatuak badira, legeetan ezarritako mugen barruan izango du erantzukizuna Administrazioak.

B. BERANDUTZEAGATIK ETA EXEKUZIOAN AKATSAK AGERTU DIRELAKO

Kontratistaren erantzukizuna izango dira berak gauzatzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzerakoan izandako hutsegite edo hutsuneetatik, edo metodo desegoki edo ondorio okerretatik Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat sortzen diren ondorioak.

Exekuzioan atzeratuz gero, zigorrak etor litezke eta kontratua aldi baterako suntsitzea, 192. eta 193. artikuluekin bat etorriz. Zigor berak ezarriko dira kontratua osorik bete ezik zein zati batean bete ezik. Zati bat bete ezik, zigorrak kalkulatzeko bete barik geratu den zerbitzuaren aurrekontua hartuko da aintzat. Horrek guztiak ez dio kentzen Administrazioari kontratua suntsitzeko daukan ahalmena. Era berean, administrazioak aukera dauka kalte-ordainak eskatzeko.

2017ko SPKLaren 76.2 eta 202.1 artikuluekin bat etorriz, ontratuaren konpromisoak edo baldintza bereziak txarto bete edo bete ezean, zigorrak arau haustearen larritasunaren araberakoak izango dira, 2017ko SPKLaren 192. artikuluan ezarritako gehienezko mugen barruan (%10 edo %50).

13.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua interes publikoko arrazoiengatik baino ezin da aldatu, 2017ko SPKLaren 204. eta 206. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Aldaketarik egin behar izanez gero, aldaketak 153. artikuluaren arabera egin behar dira, 2017ko SPKLaren 203. eta 204. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

SPKLaren 205. artikuluaren arabera, kontratazio-organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta banan-banan hartuta edo guztiak batera, hasierako kontratuaren prezioaren ehuneko 50etik gorakoa ez den aldaketa eragiten badute beren zenbatekoan, BEZik gabe.

Kontratistarentzat aldaketa derrigorrezkoa ez denean, kontratazio-organoak berak erabakiko du aldaketa hori egitea kontratistak aldaketa hura idatziz onartu ondoren; hala ez bada gertatzen, kontratua deuseztatu egingo da 2017ko SPKLaren 206. artikuluari jarraituz. Halako kasuetan, kontratua aldatu aurretik, proiektuaren edo baldintza teknikoen idazleari entzunaldia eman beharko zaio, hiru egunekoa baino motzagoa ez den epe batean, bidezko jotzen dituen azalpenak eman ditzan, baldin eta zerbitzu-kontratu bat dela-eta baldintza horiek kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek eginak badira.

Sastrakak kendu beharreko bideen luzera 12.278 M.L. da gutxi gorabehera. Hala ere, neurketa horrek % 5eko balorazioa izan dezake, baina horrek ez du ekarriko esleitutako guztizko prezioa aldatzea.

2017ko SPKLaren 205. artikuluaren lehen paragrafoan jasotako baldintzak betez gero, aurreikusi gabeko aldaketa bat justifikatuta dago kasu hauetan:

a) Hasieran kontratatutakoak baino zerbitzu gehiago behar direnean, legez aurreikusitako baldintzak betez gero.

b) Kontratuaren lizitazioa egin zenean aurreikusi ezin ziren eta gerora agertutako gorabeheren ondorioz sortu bada indarrean dagoen kontratua aldatu beharra, legezko baldintzak betez gero.

Berariaz aurreikusten da kontratuaren xedea aldatzea; izan ere, kontratuaren izaera dela eta, eta, zehazkiago, negu garaiko lanei dagokienez, litekeena da neguko hilabeteetan udal bideetan elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko lanetarako kalkulatutako lanen kopurua aldatzea. Aldaketa hori klimatologiarekin zuzenean baldintzatuta dago, eta nekez aurreikus daiteke. Horregatik, kontratua aldatzea aurreikusi behar da. Zenbatekoa aldatzeak ezin du kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditu, BEZik gabe.

Kontratua indarrean dagoela aldatu behar bada, kontratuaren aldaketa formalizatu behar da eta aldaketaren gaineko iragarkia kaleratu behar da kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, aldaketa onartu eta 5 eguneko epean.

14.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak prestazioa erabat gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta.

Dena den, zerbitzua bete dela egiaztatzeko, kontratuaren helburu den zerbitzua amaitzen denetik hilabeteko epean zerbitzuari harrera egiteko ekintza formala eta positiboa egingo da.

Kontratu honen izaera dela eta, hilabete bateko (3) berme-epea aurreikusten da, erreklamaziorik dagoen egiaztatzeko.

15.- KONTRATUA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Kontratistak kontratua betetzeko guztira ezarri den epearen barruan burutu behar du kontratua, eta prestazioen burutzapen partzialerako ezarritako epeak ere bete behar ditu.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurreko eskaera edo errekerimendua egitea.

12. klausulan jasotako zigorrak eta 16. klausulan jasotako suntsitzeko ahalmenak gorabehera, kontratua suntsitu eta bermea galdu arren, Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du eragindako kalte-galerengatik, harik eta bermearekin estali ez den zenbatekoa estali arte.

Langileen soldatak edo Gizarte Segurantza ordaintzeko betebeharra betetzen ez bada, Udalari kalte-ordaina eman beharko zaio ez-betetze horiek ekar dezaketen edozein kalterengatik.

16.- KONTRATUA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK

Administrazio kontratuetarako aurreikusitako arrazoiengatik suntsituko da kontratua, 2017ko SPKLaren 211. artikuluaren arabera eta testu horren 313. artikuluan zerbitzuetarako kontraturako ezarritakoetarako.

211. artikuluko f) eta h) paragrafoetan ezarritakoa aintzat hartuta, kontratuaren oinarrizko betebeharrak ez betetzea kontratua suntsitzea ekarriko du. Hona hemen arrazoiak:

a) Isilpeko datuak edo aurrekariak isilean ez gordetzea.
b) Azpikontratazio arloko mugak ez betetzea. Administrazioak kontratua suntsitu dezake plegu honetan azpikontrazio arloan ezarriko betebeharrak eta mugak ez betetzeagatik.
c) Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenei trabak jartzeagatik. Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoia da kontratistak ez laguntzea edo trabak jartzea Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak gauzatzeko orduan, aurrez idatziz ohartaraziz gero.
d) Pleguan ezarritako bitarteko pertsonal edo materialak ez atxikitzea.
e) Pleguan zehaztutako baldintza bereziak ez betetzea.

Alde biek erabakiz gero kontratua suntsitzea, alde bien eskubideak hitzartutakora egokituko dira.

17.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

a) Interpretazioa

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

b) Uko egitea eta atzera egitea

Kontratazio organoak erabakitzen badu deialdia egin eta gero kontratu bati uko egitea edo esleipenerako prozedurari berriro ekitea, SPKLaren 336. artikuluan aurreikusitako txostena egin ondoren, jakinarazi egin behar die hautagaiei edo lizitatzaileei.

Kontratua hitzartzeari uko egitea edo prozeduran atzera egitea kontratazio organoak baino ezin du erabaki, esleipena baino lehen. Bata gertatu zein bestea gertatu, konpentsatu egin behar dira hautagai edo lizitatzaileak ordura arte sortutako gastuengatik, Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorrekin bat etorriz.

Ez dago beste lizitaziorik sustatzerik, atzera egiteko erabili ziren arrazoiak bere horretan dauden bitartean. Prozeduran atzera egitea, ordea, ez da arrazoia lizitazio prozedurari ekiteko berehala.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

18.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA ETA MODUA

A.- PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eta izapide laburrak erabiliz, beti ere, 2017ko SPKLaren 131. artikuluan eta 156-158 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eskaintzarik onena hautatzeko zehaztu diren irizpideak ezarrita (2017ko SPKLaren 145. eta 146. artikuluak). Irizpide horiek pleguaren 19. klausulan datoz zehaztuta.

B- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratazio organoak internet bidez zabalduko du kontratatzailearen profila. Kontratatzaile profilerako sarbidea erakundearen web-orrian dago zehaztuta, baita EAEko Kontratazio Plataforman eta plegu honetan ere.

C.- LIZITAZIOARAKO DEIALDIA

2017ko SPKLaren 135. artikuluan ezarritako moduan.

D.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko eta profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 74. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 19.ª. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Era berean, 2017ko SPKLaren 70. artikuluan datozen bateragarritasun-baldintza bereziak bete behar dira.

Gainera, beren kabuz edo baimendutako ordezkari baten bitartez egin dezakete (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kide bat aritzen bada, horretarako ahalmena duela frogatu behar du agiri bidez. Batera zein bestera, ordezkariari ere lehen aipatutako kontratatzeko debeku horiek ezarri ahal zaizkio.

Enpresariek kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Kontratatzeko gaitasuna dute Europako Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainiarrek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileek, eurek dauden Estatuko legediarekin bat etorriz, eskaini beharrekoa eskaintzeko gaituta badaude. . Euren estatuko legediak baimen berezia edo erakunde bateko kide izatea eskatzen badu zerbitzua eskaini ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute

Jarduteko gaitasunik, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala ez duten pertsonei esleituz gero kontratuak; sailkapena eskatzen denean, sailkapenik gabeko enpresei esleituz gero kontratuak; edo kontratatzeko debekuren bat dutenei esleituz gero, esleipena deusez izango da, 2017ko SPKLaren 39.2.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

19.- BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta atxikitzen zaien haztapen-mailaz, honakoak dira:

1. LOTEA.- BASERRI-BIDEETAKO, BASO-PISTETAKO, OSPITALE ZAHARREKO, SANTAMARINAZAR GAINEKO ETA KIROLDEGI INGURUKO SASITZAK GARBITZEKO eta NEGUKO ELURTEEN ETA LEIEN OSTEAN ZALDIBARKO KALEAK ATONTZEKO ZERBITZUA

AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKOAK: GEHIENEZ 30 puntu

1.- Zerbitzuaren antolamenduari eta erabilitako baliabideei buruzko memoria teknikoa: 30 puntura arte.

Zerbitzua emateari buruzko memoria teknikoa puntuatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Egin beharreko lanak antolatzea eta programatzea, baita horien deskribapen xehatua ere (10 puntu, gehienez)

b) Zerbitzua emateko erabiliko diren baliabide materialen eta giza baliabideen deskribapena, horien ezaugarriak eta dedikazioa zehaztuta (10 puntu, gehienez)

c) Udal-bideetan elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko jarduketa-protokoloa (10 puntura arte)

Dokumentu hori aurkeztu ezean, eskaintza besterik gabe kanpoan geratuko da.

Dokumentu horrek gehienez 30 orrialde izango ditu (15 orri bi aldeetara), DIN A-4, Arial motako letraz idatzita, 12 neurrikoa, lerroarte bakunekoa, eta 2 zentimetroko orri-oinarekin, goiburuarekin eta orri-oinarekin. 4 orrialde ere sartu ahal izango dira (2 orrialde bi aldeetara) din A-3 tamainan, hala eskatzen duen dokumentaziorako. A4rako zein A3rako ezarritako gehieneko orrialde-kopurua gainditzen duen 5 orriko edo zatiki bakoitzeko -1 puntuko zigorra ezarriko da.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHAR DEN GUTXIENEKO PUNTUAZIO-ATALASEA: SPKLren 146.3 artikuluaren arabera, balorazio orokorrean onartuak izateko, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideetan lizitatzaileek gutxieneko puntuazio-atalasea lortu beharko dute; beraz, kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko 15 puntu lortzen ez dituzten eskaintzak.

AUTOMATIKOKI BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIORIK GABE BALORATU BEHARREKOAK: 70 puntu

1) ESKAINTZA EKONOMIKOA (sastrakak kentzeko eta bide-bazterrak garbitzeko zerbitzua): 40 puntu arte.

Puntuak banatzeko formula hau erabiliko da: 40 puntura arte.

PO=MaxP Ob/Ol*

Hemen esanahia:

PO: balioetsi beharreko eskaintza, puntuak
MaxP= Gehienezko puntuak
Eme- Eskaintzarik merkeena
Ol= balioetsi beharreko eskaintza

2) ESKAINTZA EKONOMIKOA (udal bideetan elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko zerbitzua) 15 puntura arte.

Puntuak banatzeko formula hau erabiliko da: 15 puntura arte.

PO=MaxP Ob/Ol*

Hemen esanahia:

PO: balioetsi beharreko eskaintza, puntuak
MaxP= Gehienezko puntuak
Eme- Eskaintzarik merkeena
Ol= balioetsi beharreko eskaintza

Egindako lanak eskainitako unitate-prezioen eta gauzatutako unitateen arabera fakturatuko dira, urtean 6.050,00 €gehienez (% 21 BEZa barne).

3) ELURRA KENTZEKO ETA/EDO GATZA ZABALTZEKO ZERBITZUARI ERANTZUTEKO DENBORA
15 puntura arte.

Gehienez 3 orduko erantzun-denbora murrizten den 30 minutuko, 3,75 puntu emango dira denbora murrizten den 30 minutuko. 15 puntu arte.

Eskaintza ekonomiko globala honako hauek osatuko dute: bazterrak garbitu eta garbitzeko zerbitzuari dagokion eskaintza ekonomikoaren batura eta elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko zerbitzuaren eskaintza ekonomikoa.

2. LOTEA.- UDALERRIKO ZENBAIT TOKITAN ZUHAITZAK INAUSTEA

AUTOMATIKOKI BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIORIK GABE BALORATU BEHARREKOAK: 100 puntu

1) ESKAINTZA EKONOMIKOA 100 puntu, gehienez.

Gehieneko puntuazioa (100 puntu) emango zaio eskaintzarik merkeenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa honako formula honen arabera kalkulatuko da: ekonomikoki baxuena den eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplika dakizkiokeen puntuen guztizko kopurua, formula honen arabera:

Po = 100 x Omin / Ol

Non:

Po = Lizitatzailearen puntuazioa

Omin = Enpresa lizitatzaileek eskainitako zenbateko txikiagoa

Ol = baloratzen den lizitatzailearen eskaintza

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 149. artikuluarekin bat etorriz, ikusi ahal izango du enpresa baten proposamena ezin izango dela bete baldin eta, baldintza tekniko berberetan, eskaintza ekonomikoa anormaltzat edo neurriz kanpokotzat jotzen bada Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan ezarritako irizpide objektiboak aplikatuz. Horretarako, eskaintza ekonomiko globala hartuko da kontuan, eta ez bereizita.

Eskaintza anormal edo neurrigabetzat jotzen da aurkeztutako eskaintzen batez bestekoa baino % 25 gutxiagoko prezioa eskaintzen duena. Kalkulu horretan, balorazioaren xede den eskaintza bera sartzen da, interpretatzen baita horrelako baja batek langileen eskubideen kalterako baino ezin duela izan

Ezin izango da inola ere baja justifikatu baldintza-agirian jasotako betebeharrak urratuz, ez eta betebehar horiek zeharka urratzen dituzten eragiketen bidez ere.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

SPKLaren 147. artikuluan ezarritakoak.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

A.- Kontratazio espedientea

Kontratazio honen espedientea kontratatzailearen profilean egongo da ikusgai, prozesua amaitu arte, beti ere, SPKLaren 116. artikuluarekin bat etorriz.

Era berean, udal-bulegoetan aztertu daiteke, 9:00etatik 14:00ak arte, eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

B.- Aurkezteko epea

Eskaintzak aurkezteko edo bidaltzeko epea iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunean hasiko da; hamabost (15) egunekoa da, lizitazioaren gaineko iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, 2017ko SPKLaren 156.6 artikuluarekin bat etorriz.

SPKLaren 136. artikuluarekin bat, eskaintzak formatu elektronikoan aurkeztu behar dira Zaldibarko Udalaren web-orriaren plataforma digitalaren bitartez http://www.zaldibar.eus/eu-ES/Enplegua/Kontratatzaile-profila/Orriak/default.aspx

"Lizitazioa" dioen atalean, eskaintzak aurkezteko aplikazioa jaitsi daiteke.

C.- Aurkezteko modua

Lizitatzaileek proposamenak aurkeztu beharko dituzte, plataforma aurkezteko programak xedatzen duenaren arabera.

Bidalitako fitxategiak "* .pdf" formatuan bidali beharko dira eta digitalki behar bezala sinatuta, eta horien izenburuak edukia labur-labur zehaztu beharko du.

Plataformak aukera hori eskaintzen ez badu, aurkezteko modua ordenatuz, bi karpeta hauen bidez aurkeztu beharko da:

Zaldibarko udalerrian, elurteak eta izozteak direla-eta, landa-bideetako sastrakak kentzeko eta bide publikoak egokitzeko eta zuhaitzak inausteko zerbitzua emateko eskaintza_____"

Sistemak ez badu onartzeko luzera batetik gorako esaldirik, karpetetan hitz hauek jarri behar dira:

""Eskaintza, Zaldibar, sasiak garbitzea eta inaustea _____"

Etenpuntuak dauden lekuan lizitzailearen izena jarri behar da, inizialak edo bera identifikatzeko izenaren zati bat.

Pleguetara eta lizitazioa arautzen duen dokumentaziora egokitu behar dira interesdunek proposamenak. Proposamena aurkezteak berekin dakar klausula edo baldintza guztiak onartzea, salbuespen barik. Era berean, aurkeztean baimena ematen zaio mahaiari eta kontratazio organoari Lizitatzaileen eta Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean zein Europako Batasuneko kide den estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta jarri beharreko baliabideak jarri behar dira isilpekoak izan daitezen, harik eta proposamenak ireki arte.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu dezake, ez bada 2017ko SPKLaren 142. artikuluan jasotakoa gertatzen, aldaerak onartzea aurreikusita dagoen kasuetan. Eta 143. artikuluan (enkante elektronikoa). UTE (aldi baterako enpresa-elkartea) gisa ere ez dago beste batzuekin batera proposamenik aurkezterik banan aurkeztu badira. Era berean, ez dago UTE batean baino gehiagotan parte hartzerik. Aurrekoa hautsiz gero, ez da onartuko era horretako proposamenik.

21.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA ETA EDUKIA

Lizitatzaileek proposamen guztietan bi karpeta egon behar dira dokumentazio honekin:

KARPETA: ADMINISTRAZIOKO AGIRI OROKORRAK ETA AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DIRENAK

Karpeta horretan izaera orokorreko informazioa edo administraziokoa egongo da, eta horrekin egiaztatu behar da 2017ko SPKLaren 140. artikuluan datorrena betetzen dela. Era berean, hortxe egon behar da balio-judizio baten mende dauden irizipideen arabera baloratu behar diren agiriak.

1.-. Administrazio-agiriak.

A.-Erantzukizunpeko adierazpena, kontratazioaren gaineko Europako dokumentu bakarraren eredura egokituko dena, 141. artikuluarekin bat etorriz. Digitalki sinatu behar da eta behar den moduan identifikatuta.

Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua helbide elektroniko honetan dago:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Edo honen bitartez

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home

Lizitatzaileak hauxe adierazi behar du:

1.- Baltzua behar den balio osoz eratuta dagoela eta sozietatearen helburuarekin bat lizitazioara aurkez daitekeela. Era berean, adierazpena sinatzen dudan honek behar den moduan ordezkatzen dut sozietatea eta badaukat proposamena aurkezteko ahalmena.

2.- Izan beharreko klasifikazioa eta kaudimen ekonomikoko, finantziarioko eta tekniko edo profesionaleko baldintzak dituela, pleguan ezarritako baldintzekin eta kontratatzeko Europako dokumentu bakarraren inprimakiarekin bat etorriz.

3.- Kontratatzeko debekurik ez duela, ez berak bakarrik, ezta SPKLaren 71.3 artikulua ezartzearen ondorioz sortutako egoeran.

4.- Posta elektronikoa, jakinarazpenetarako, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, "gaitu" beharrekoa.

5.- Erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzaileak azpikontratatu nahi duen kontratu zatiari buruzkoa. SPKLaren 215. artikuluan xedatutakoaren kaltetan gabe, enpresa lizitatzaileek adierazi egin behar dute kontratuaren zatiren bat azpikontratatzeko asmorik duten ala ez. Azpikontratatzeko asmoa izanez gero, kontratua osoaren zein portzentaje azpikontratatu behar duen adierazi behar du, noren esku utzi behar duen zati hori eta enpresaren profila. Azpikontratatutako enpresak kaudimen profesional edo teknikoko baldintzak bete behar ditu. Era berean, azpikontratatutako enpresetako langileei dagokien hitzarmen kolektiboa zein den zehaztu behar dute. Ez dago aurrekontuaren %40tik gora azpikontratatzerik.

6) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

7.- Enpresa lizitatzailearen langileen ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa (buletina eta argitalpen-data).

B.- Kasu bereziak:

a) Atzerriko enpresariak

Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.

Era berean, EBetik kanpoko enpresa esleipendunari eskatuko zaio Espainian bulegoa zabaltzea, hemen egin beharrekoak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatzea eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea. Beraz, eskaintza aurkezteak berekin dakar betekizun hori onartzea.

b) ABEEak

Lizitaioari begira, ABEEan batuta aurkeztu nahi duten enpresariek adierazi egin behar dute nork osatzen duen aldi baterako enpresa hori (izenak eta bestelako xehetasunak), bakoitzak duen partaidetza eta ABEEaren ordezkari edo ahalorde bakarraren izena, kontratua eurei esleituz gero.

ABEE hori honela badago osatuta: estatuko enpresariak, Europako Batasunekoak ez diren Estatuetakoak eta, atzerritarrak izan arren, Europako Batasunekoak diren estatuetako enpresak edo Europako Ekonomia Eremuaren gaineko Akordioaren Estatu sinatzaileetakoak; lehendabiziko biek euren sailkapena egiaztatu behar dute eta azkenek kaudimen ekonomikoa, finantziarioa eta teknikoa.

ABEEen kasuan, enpresa bakoitzak aurkeztu beharrekoez gain, 69. artikuluan datorren adierazpena aurkeztu behar dute, hau da, horrekin konpromisoa hartzen duen aldi baterako enpresa eratzeko kontratuaren esleipendun suertatuz gero.

Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, enpresa horietako bakoitzak erantukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, kasu horietan eskatzen den informazioa jasota, DEUC inprimakiaren arabera eta Legearen 75. artikuluarekin bat etorriz. 75. artikuluaren 2. paragrafoan datorren konpromisoa 140.3 artikuluaren hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz aurkeztu behar da.

c) Lotutako enpresak

Lizitatzaileek beti adierazi behar dute enpresa lotuta dagoen ala ez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako egoerekin bat etorriz eta 2017ko SPKLaren 149.3 artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratazio Legearen Erregelamendu Orokorraren 86. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, Ezaugarrien Koadroaren 10.1 atalean adierazpena aurkeztu beharra dagoela jasoko da.

d) Foru judizialaren gaineko adierazpena

Atzerriko enpresek Espainiako edozein ordenatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende ipiniko direla adierazten duen aitorpena egin beharko dute, kontratutik zuzenean eta zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, lizitatzaileari egoki lekiokeen atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko eginda.

Kontratazio-organoak zein Kontratazio Mahaiak aukera dute lizitatzaileei dokumentu batzuk edo guztiak eskatzeko, adierazpena indarrean ote dagoen edo benetakoa ote den zalantzarik izanez gero, edo prozedura behar den moduan garatzeko, beti ere, kontratua esleitu aurretik.

Hala ere, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda badago edo Europako Batasuneko kide den Estatu bateko datu-base batean (enpresaren espediente birtuala, dokumentuen biltegi elektronikoaren sistema edo aurrez sailkatzeko sistema batean) badago, eta datu horietara doan iristeko modua badago, ez dute zertan aurkeztu dokumentu horiek edo leku horietan ageri diren datuen gaineko frogagiririk.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruz aurreko apartatuetan aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

2.- Automatikoki baloratu ezin diren irizpideen gaineko dokumentazioa

1. LOTEA.- Balio-judizioaren mende ez dauden irizpideen arabera baloratu behar den dokumentazioa sartu behar da hor eta horrela deituko zaio: "ESKAINTZA TEKNIKOA" edo "MEMORIA".

Atal horren edukia –lizitatzaileen eskaintza teknikoa-, balio-judizioen arabera baloratu ahal izango da eta 19. klausulako eduki eta baldintzetara egokituko da.

1. LOTEAn hori ekarri ezik, eskaintza kanpoan geratuko da.

2. KARPETA – Automatikoki baloratu beharreko dokumentazioa

2. karpeta elektroniko bat aurkeztu beharko da lizitatzen den lote bakoitzerako.

Karpeta/gutunazalaren barruan, aparteko dokumentu batean, edukia jaso behar da, zenbakitan.

Kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera baloratu behar den dokumentazioa sartu behar da hori, formulen bidez baloratu beharrekoa, alegia. Hona hemen:

1. LOTEA.- BASERRI-BIDEETAKO, BASO-PISTETAKO, OSPITALE ZAHARREKO, SANTAMARINAZAR GAINEKO ETA KIROLDEGI INGURUKO SASITZAK GARBITZEKO eta NEGUKO ELURTEEN ETA LEIEN OSTEAN ZALDIBARKO KALEAK ATONTZEKO ZERBITZUA

1.- Eskaintza ekonomikoa. Prezioa, (sastrakak kentzeko eta bide-bazterrak garbitzeko zerbitzua):

Nahi izanez gero, plegu honetako I. eranskinean datorren eredua erabili liteke eskaintza ekonomikoa aurkezteko. Hori erabili zein erabili ez, horren edukia errespetatu egin behar da.

Nolanahi ere, proposamenean aparteko partida batean joango da Administrazioak jasan behar duen BEZa.

Eskaintza ekonomikoa karaktere argiak erabilita aurkeztu behar da eta sinatuta. Ez da onartuko edukia ondo ulertzeko galarazten dituen gauzak faltan, akatsak edo ezabaketak dituen eskaintzarik.

UTE batek aurkeztutako eskaintza UTE hori osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek sinatuta aurkeztu behar da.

Proposamenen baten eta aurkeztutako eta onartutako dokumentazioaren artean loturarik ez badago, proposamenak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egiten bada, edo lizitaziogileak proposamena bideraezina egiten duen akatsen edo ahultasunen bat duela onartzen badu, Kontratazio Mahaiak proposamena

baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bat eman ostean. Hala ere, hori ez da ereduaren hitz batzuk kendu edo aldatzeko nahikoa izango, baldin eta horrekin ez bada zentzua aldatzen.

2.- Eskaintza ekonomikoa. Prezioa (udal bideetan elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko zerbitzua)

Nahi izanez gero, plegu honetako I. eranskinean datorren eredua erabili liteke eskaintza ekonomikoa aurkezteko. Hori erabili zein erabili ez, horren edukia errespetatu egin behar da.

Nolanahi ere, proposamenean aparteko partida batean joango da Administrazioak jasan behar duen BEZa.

Eskaintza ekonomikoa karaktere argiak erabilita aurkeztu behar da eta sinatuta. Ez da onartuko edukia ondo ulertzeko galarazten dituen gauzak faltan, akatsak edo ezabaketak dituen eskaintzarik.

UTE batek aurkeztutako eskaintza UTE hori osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek sinatuta aurkeztu behar da.

Proposamenen baten eta aurkeztutako eta onartutako dokumentazioaren artean loturarik ez badago, proposamenak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egiten bada, edo lizitaziogileak proposamena bideraezina egiten duen akatsen edo ahultasunen bat duela onartzen badu, Kontratazio Mahaiak proposamena baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bat eman ostean. Hala ere, hori ez da ereduaren hitz batzuk kendu edo aldatzeko nahikoa izango, baldin eta horrekin ez bada zentzua aldatzen.

Eskaintza ekonomiko globala honako hauek osatuko dute: bazterrak garbitu eta garbitzeko zerbitzuari dagokion eskaintza ekonomikoaren batura eta elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko zerbitzuaren eskaintza ekonomikoa.

Eskaintzak neurriz gainekotzat edo anormaltzat joko dira aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren baino %25 merkeagoak badira; eskaintza bera ere sartuko da kalkulu horretan, uste baita horrelako merketzeak langileen eskubideen kalterako baino ez direla. Horretarako eskaintza ekonomiko orokorra hartuko da kontuan, eta ez bananduta.

Eskaintza ekonomikorik aurkeztu ezean, eskaintza kanpoan geratuko da.

3.- Elurra kentzeko edota gatza zabaltzeko zerbitzua emateko denbora

Enpresa lizitatzaileak konpromiso arduratsu sinatu bat aurkeztu beharko du, eta bertan adieraziko du eskaintzen duen erantzun-denboraren murrizketa. Nahi izanez gero, I. eranskineko eredu bera erabiliko da.

2. LOTEA.- UDALERRIKO ZENBAIT TOKITAN ZUHAITZAK INAUSTEA

1.-) Eskaintza ekonomikoa.

Nahi izanez gero, plegu honetako I. eranskinean datorren eredua erabili liteke eskaintza ekonomikoa aurkezteko. Hori erabili zein erabili ez, horren edukia errespetatu egin behar da.

Nolanahi ere, proposamenean aparteko partida batean joango da Administrazioak jasan behar duen BEZa.

Eskaintza ekonomikoa karaktere argiak erabilita aurkeztu behar da eta sinatuta. Ez da onartuko edukia ondo ulertzeko galarazten dituen gauzak faltan, akatsak edo ezabaketak dituen eskaintzarik.

UTE batek aurkeztutako eskaintza UTE hori osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek sinatuta aurkeztu behar da.

Proposamenen baten eta aurkeztutako eta onartutako dokumentazioaren artean loturarik ez badago, proposamenak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egiten bada, edo lizitaziogileak proposamena bideraezina egiten duen akatsen edo ahultasunen bat duela onartzen badu, Kontratazio Mahaiak proposamena baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bat eman ostean. Hala ere, hori ez da ereduaren hitz batzuk kendu edo aldatzeko nahikoa izango, baldin eta horrekin ez bada zentzua aldatzen.

Eskaintza ekonomikorik aurkeztu ezean, eskaintza kanpoan geratuko da.

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA (errekerimendua eginez gero eta lehiatzailea esleipendun suertatuz gero)

1) Nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa: Banakako enpresarien nortasun juridikoa Nortasun Agiriaren (NA) kopia kautoaren bidez egiaztatuko da; enpresariak pertsona juridikoak izanez gero, entitatearen eraketari buruzko eskritura edo entitatea eratu izana jasotzen duten agiriak eta estatutuak aurkeztuta, guztiak Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak.

Europar Batasuneko estatuetako kide izanik espainiarrak ez diren enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da: kokatuta dauden estatuko legeriaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta egotea egiaztatuta edo, bestela, zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztu behar da, arauz ezarritako baldintzetan, aplikagarri den Europar Batasuneko xedapenen arabera.

Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiak beren estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde-eremuari dagokion Kontsuletxeko Bulegoaren txostena erakutsita.

2) Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa: Proposamena beste norbaiten izenean izenpetzen dutenek ordezkapen-ahalmena aurkeztuko dute, baita ordezkatzeko adinako ahalmena duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia kautoa ere.

Gutun-azal honetako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan erakunde honek askietsiko du notario-ahalordea.

3) Entzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

4) Atzerriko enpresa guztiei eskatzen zaien dokumentazio osagarria: Atzerriko enpresak badira, eta kontratua Espainian exekutatu behar bada, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute aitorpen baten bidez, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

5) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

6º. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

- 1. lotea: 87.1.a) artikulua .- azken 3 urteetako negozio-bolumen onena, 40.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa. Enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, Merkataritza Erregistroan gordailututako kontuekin egiaztatuko da, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoekin.

- 2. LOTEA: 87.1. artikulua..a) .- azken 3 urteetako negozio-bolumen onena, 6.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa. Enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, Merkataritza Erregistroan gordailututako kontuekin egiaztatuko da, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoekin.

7) Lizitatzailearen gaitasun teknikoa eta profesionala.

- (90.1 artikulua) .a).- Egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, kontratuaren xedearen izaera berekoak edo antzekoak., azken hiru urteetakoak. Hor adierazi behar da zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua).

Enpresa sortu berrien kasuan (5 urtetik beherako antzinatasuna dutenak), kaudimen teknikoa SPKLren 90. artikuluko b) letratik i) letrara bitartean aipatzen diren irizpideetako baten bidez egiaztatuko da, eta ez da inola ere aplikatuko aurreko paragrafoan zerbitzuen kopuru eta/edo zenbateko jakin bat gauzatzeari buruz ezarritakoa.

Izaerari eta ordezkaritzari buruzko gorabeherak, sailkapena eta kaudimen ekonomiko eta finantziarioari buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren eta Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bidez froga daitezke, bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 81. artikuluan eta 87.2. artikuluan ezarritakoarekin bat datorren

Erkidegoko sailkapen-ziurtagiri baten bidez ere. Ziurtagiria aurkeztuz gero, horrekin batera lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da, ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu azaltzen duena.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik behar bezala kautotu edo egiaztatuta aurkeztu behar dira.

22. KONTRATAZIO MAHAIA

2017ko SPKLaren 326. artikuluan eta 817/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak espedientearen esleipenean esku hartu behar duen Kontratazio Mahaia izendatu du. Udal funtzionario hauek osatzen dute mahaia:

Presidentea: Alkatea

Idazkaria: Arantza Acebo Acebo (bitarteko funtzionarioa)

Bokala: Inmaculada Echeandia Viñuela (idazkari-kontu hartzailea).

Bokala: Asier Salaberria Bustos (arkitekto teknikoa)

Alkateordeak ordezkatu dezake presidentea.

Kontratazio-mahaia –laguntza teknikoko organoa den aldetik- ondoko funtzioak beteko ditu, Legean bertan egozten zaizkionak eta erregelamenduaren garapenean datozenak:

a) 140. eta 141. artikuluetan aipatutako baldintzak beteten direla egiaztatzen duten dokumentuen sailkapena, eta, hala badagokio, baldintza hori betetzen ez duten hautagaiak edo lizitatzaileak kanpoan uzteko erabakia hartzea, akatsak konpontzeko izapidea egin orduko egin behar da.
b) Lizitatzaileen proposamenak baloratzea.
c) Eskaintza bat nabarmenki baxuegia dela adierazteko proposamena Lege honen 149. artikuluan aipatutako prozedura izapidetu baino lehen egin behar da.
d) Kontratazio organoak egin beharreko proposamena, kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleitzeko proposamena, alegia, 145. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egin behar da, lizitatzailea arautzen duten administrazio baldintza berezien pleguarekin bat etorriz.

23. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

1.- Kontratazio Mahaia orduko egin beharrekoak: 1. karpeta

"1. karpetan" lizitatzaileek sartutako dokumentuak sailkatzeko, kontratazio mahaiak SPKLEOren 81. artikuluan datorren moduan jokatu behar du. Egindako urrats guztiak aktan edo aktetan jaso behar dira, derrigor egin behar dira-eta aktak.

Lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo hutsuneak ikusiz gero, 2017ko SPKLaren 141.2 artikuluan, SPKLEOren 81.2 artikuluan eta 817/2009 EDaren 27. artikuluan ezarritakoa egingo da. Konpon daitezkeen akatsak hautematen baditu, hiru eguneko epea emango dio lizitatzaileari zuzen ditzan.

Hala ere, egintzak aurrera egingo du, eta publikoa izango da. Lizitatzaileei jakinaraziko zaie zein den onartutakoen zerrenda, zein kanpoan geratu direnena eta zein akatsak zuzendu behar dituztenena.

Jarraian, aurkeztutako dokumentazioa irakurriko du azaletik (aurkibidea), onartutako lizitatzaileen automatikoki zenbatetsi ezin diren irizpideei buruzkoa eta zuzentzeko daudenei buruzkoa.

Horren ostean, Mahaiak karpetako dokumentazioa txostena egitera bidaliko du, zerbitzu teknikoek proposamenak aztertu ditzaten eta balorazio-proposamena egin dezaten edo, bestela, mahaiko kide baten eskuetan utziko da balorazio-proposamena egitearen ardura.

2.- Kontratazio-mahaiaren bigarren egintza: 2 karpeta -automatikoki balioesteko irizpideen gainekoa- irekitzeko eta eskaintza ekonomikoa irakurtzeko egintza publikoa.

Automatikoki balioetsi ezin diren irizpideen gaineko txostena jaso eta gero, Kontratazio Mahaiak ekitaldi publikoan emango du automatikoki balioetsi ezin diren irizpideen ebaluazioari buruzko emaitza.

Gero 2) karpeta irekiko dute; onartutako proposamenen inguruan, automatikoki balioetsi daitezkeen irizpideen gainekoa. Bestetik, eskaintza ekonomikoak irakurriko dituzte, baita bestela automatikoki balioetsi beharreko irizpideak ere.

Nolanahi ere, lehendabizi balio-judizio baten arabera balioesten diren irizpideak balioetsiko dira, eta gero automatikoki balioesten direnak.

3.- Enpresak sailkatzea

Jendaurreko egintza amaitu ostean kontratazio-mahaia batuko da, atea itxita, nabarmenki baxuegitzat jotzeko moduko eskaintzaren bat ote dagoen ikusteko; eskaintzak sailkatuko ditu handitik txikira. Eta, hala badagokio, kontratazio organoari ekonomikoki eskaintzarik merkeena ezarriko du.

Espedientea kontratazio-organoari emango zaio, kontratua esleitu dezan, dokumentazioa ekarri eta gero. Eta hortxe jasoko dira zehatz kontratuaren gaineko behin betiko xehetasun guztiak.

Esleipena baldintzapean egingo da: esleipendunak jakinarazpenean datozen guztiak bete behar dira eta, gainera, kontratua formalizatu behar du.

SPKLaren 149. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Kontratazio-mahaiak eskaintzaren bat edo batzuk nabarmenki baxuegiak diren identifikatuko du.

Nabarmenki baxuegitzat jotzeko moduko eskaintzaren bat identifikatuz gero, lizitatzaileari gutxienez hiru egun balioduneko epea emango zaio prezio edo kostu edo bestelako parametroak zergatik diren hain baxuak arrazoitzeko. Horretarako, aurkeztu beharreko informazioa eta dokumentuak aurkeztuko ditu.

Kontratazio-mahaiak lizitatzaileari bidaltzen dion eskaera argi eta garbi idatzi behar da, lizitatzaileak eskaintzaren bideragarritasuna frogatzeko modua izan dezan egoki.

Zehatz esanda, kontratazio-mahaiak aukera dauka lizitatzaileei justifikazioa eskatzeko zerk eraginda sortu diren eskaintzaren prezio edo kostu baxuak, SPKLaren 149.4 artikuluarekin bat etorriz.

Prozeduran kasuan kasuko aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Lizitatzaileak epe barruan aurkeztutako informazio eta dokumentazio guztia baloratuko du kontratazio-mahaiak eta behar den moduan arrazoituta proposamen bat onartu edo atzera botatzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari. Inolaz ere ez da erabakiko eskaintza onartzea kontratazio-mahaiak horri buruz egiten duen proposamena behar bezala arrazoitu gabe badago.

Laugarren atalean aipatutako txostenak eta lizitatzailearen jusifikazioa aintzat hartuta, kontratazio-organoak uste badu informazio horrek ez duela ondo azaltzen zergatik diren hain baxuak lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuak, eta, ondorioz, eskaintza betetzerik ez dagoela, neurriz kanpoko balioak daudelako, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintzarik onenaren aldeko esleipena erabakiko du, sailkapenaren hurrenkerarekin bat etorriz eta 150. artikuluaren 1. atalarekin bat. Oro har, baztertu egingo dira ustez neurriz kanpokoak diren eskaintzak, hipotesiak badituzte oinarri edo praktika desegokiak, ikuspuntu tekniko, ekonomi edo juridikotik.

Emandako pauso guztien berri emango du espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

Kontratua ustezko anormaltasun batean sarturik egon den enpresa bati adjudikatzen zaionean, kontratazio-organoak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren jarraipen xehe-xehea egiteko, zuzen egikaritzen dela bermatze aldera, kontratatutako zerbitzu, obra edo horniduren kalitatean galerarik gertatu gabe.

4.- Errekerimendua, hala badagokio, lehen sailkatuari

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako hau egiteko eskatuko zaio:

- Kontratua burutzeko behar diren baldintza guztiak eta pleguan jasotakoak betetzen direla ziurtatzeko agiriak aurkeztea.

  Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan erabakiko da eskatutako baldintza guztiak betetzen diren ala ez.

- Behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztea, hala badagokio.
- Berdinketa suertatuz gero, berdinketa hausteari buruzko dokumentazioa aurkeztu behar du.
- Lehen sailkatua aldi baterako enpresa-elkartea, elkartea formalizatu zeneko eskritura publikoa aurkeztu behar du. Elkartekide bakoitzak ziurtagiri positiboa ekarri behar du Ogasun arlokoa eta Gizarte Segurantzakoa. Era berean, Ekonomi Jardueren gaineko dokumentazioa aurkeztu behar du.
- Kontratua exekutatzeko agindu dituen eta kontratazio organoak eskatu dizkion baliabideak benetan dituela erakusten duen dokumentazioa.

- Primen poliza eta ordainagiri hau aurkeztea:
  - Erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), inori kalterik eginez gero edo langileek zein bere menpeko iraunkorrek edo aldi baterakoek egindakoengatik gertatu daitekeenari erantzun ahal izateko, makinei zein ekipoei, baita esleitu behar diren obrak exekutatzeko lanen ondorioz gertatu daitekeenari aurre egiteko ere. Frankizia ezingo da 3.005,06 €-tik gorakoa izan, eta ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga 300.000,00 €-koa izango da.
    Horretarako, plegu honen II. eranskina bete behar du esleitzaileak.

- Enpresa lizitatzailearen langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa (buletina eta argitalpen-data).

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo hutsuneak antzemanez gero, interesdunari posta elektronikoz jakinaraziko zaio eta gehienez hiru egun emango zaizkio akatsa zuzentzeko.

Ezarritako epean errekerimenduan eskatutakoak bete ezean, lizitatzaileak eskaintzari uko egin diola ulertuko da eta, orduan, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori, beti ere, eskaintzak sailkatutako hurrenkeraren arabera.

Eskaintza kentzen badu, lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren %3 eskatuko zaio, BEZ kanpo utzita, zigor gisa. Hori betetzeko, lehenengo behin-behineko bermearen kontra joko dugu, horrelakorik badago, behintzat. Horrek ez du kentzen kontratatzeko debekua duela aintzat hartzea, ez duelako errekerimendua bete epe barruan, dolu, erru edo zabarkeria tartean direla.

Eskaintzarekin atzera egin duela ulertuz gero, dokumentazio hori bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatuko du kontratua.

5.- Esleipena

Esleipenaren ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epean kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinazpenean eta publizitatean nahikoa informazio jaso behar da interesdunek esleipen prozeduran esleipen-erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkezteko aukera izan dezaten. Besteak beste, hauxe jaso behar da:

- Esleipen prozeduratik kanpo geratu diren lizitatzaileak. Zergatik ez den euren eskaintza onartu, zergatik erabaki den eskaintza ez dela egokitzen errendimendu edo eskakizun funtzionaletara eta lizitatzaile guztiei izendatutako balorazioak, esleipendunarena barne.

- Edozein modutan ere, esleipendunaren izena, eskaintza hori eta ez onartutako besteak aukeratzera eraman dituzten arrazoiak (proposamenaren ezaugarriak eta onurak).

Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, 2017ko SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz.

6.- Formalizazioa

Kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa egin behar da, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa. Aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu adjudikazio-irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.

Kontratazio-organoak gehienez bost eguneko epea emango dio esleipendunari kontratua formalizatzeko, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita. Era berean, aurreko paragrafoan datorren epea agortu behar da errekurtsorik ez dela aurkeztu ikusteko, errekurtsoak kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko luke eta. Berdin jokatuko dute errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

Gainontzekoetan, kontratuaren formalizazioa esleipenak hautatutako moduan egingo da, esleipenaren gaineko jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei egin eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan.

Esleipendunaren erruz, kontratua formalizatu ez eta esleipenaren ebazpena onartuta dagoela dioen agiriaren kopia bueltatu ez bada, ezarritako epe barruan, lizitazioaren oinarri den aurrekontuaren %3 eskatuko zaio, BEZ kanpo utzita, zigor gisa. Lehendabizi, behin betiko bermeari oratuko zaio, bermea ipinita badago. Eta baliteke hori egin izana debekutzat hartzea kontratatzeko.

Horrelakorik gertatuz gero, hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, bete beharrekoak betetzen dituen erakusten duen dokumentazioa aurkeztu ondoren esandako epeetan.

Kontratua ez formalizatzea Administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratistari.

Ez dago kontratua exekutatzerik formalizatu gabe.

- Formalizazioa iragartzea

Kontratuaren formalizazioa eta kontratua bera Kontratatzailearen profilean argitaratuko dira goia jota hamabost eguneko epean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, kontratua burutu eta gero.

Formalizazioaren gaineko iragarkian 2017ko SPKLaren II. eranskinean datorren informazio guztia jaso behar da.

Aukera dago kontratuaren gaineko zenbait datu ez argitaratzeko espedientean bertan ondo arrazoituz gero informazio hori zabaltzea oztopo izan daitekeela araua ezartzeko, interes publikoaren kontrakoa izan litekeelako edo enpresa publiko zein pribatuen merkataritza interes legitimoen kalterako izan litekeeko, baita euren arteko lehia leialaren kontrakoa ere. Berdin egin daiteke isilpean gorde beharreko kontratuekin edo kontratu horien exekuzioan segurtasun neurri bereziak behar badira, indarrean dagoen legediarekin bat etorriz, edota Estatuaren segurtasunaren oinarrizko interesak babestu behar badira eta horrela adierazi bada 2017ko SPKLaren 19. artikuluaren 2. atalaren c) hizkian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Kasu horretan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aipatzen duen txostena eskatu beharko zaio Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari, 2017ko SPKLren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera.

24.- KONTRATUA EZ ESLEITZEKO ERABAKIA ETA ESLEITZEKO PROZEDURARI UKO EGITEA

Kontratazio organoak esleipen prozedurari uko egiten badio edo erabakitzen badu kontratua ez esleitzea deialdia egin eta gero, lizitatzaileei jakinarazi behar die.

Kontratazio organoak erabaki dezake kontratua ez esleitzea edo esleipen prozedurari uko egitea formalizatu baino lehen. Horretara helduz gero, eta gastuak behar den moduan zurituz gero, konpentsazioa eman behar die lizitatzaileei gastu horiengatik. Ez dago inolaz ere kalte-ordainik hartzerik eskaintzak prestatzen emandako denboragatik, ezta eskaintzak egiteko azpikontratarik hartu bada, azpikontrata horrek kobratutakoagatik.

Kontratua ez esleitzeko erabakia hartzeko interes publikoko arrazoiak egon behar dira, eta espedientean jasota, behar den moduan justifikatuta. Horretara helduz gero, ez dago beste lizitaziorik sustatzerik, erabaki hori eragin duten arrazoiek bere horretan dirauen artean.

Prozedurari uko egitea: kontratua prestatzeko edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen arau-hauste bat izan behar du oinarri, zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat eta hala jaso behar da arrazoi hori espedientean. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala lizitazio-prozedura bat hastea.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta plegu honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea; Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

26.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak, hargatik eragotzi gabe Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.2 artikulua,

datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, kontratistak tratamenduaren arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatu behar dituen kontratuetan.

-Datuak lagatzeko helburua kontratuaren xede diren jarduerak egiteko behar-beharrezkoak diren jarduerak gauzatzea dela.

- Kontratista izango denak nahitaez bete behar du estatuko eta Europar Batasuneko araudia, datuak babesteari dagokionez, hargatik eragotzi gabe 202. artikuluko 1. paragrafoaren azken lerrokadan ezarritakoa.

- Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi beharko du zerbitzariak non kokatuko diren eta horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren.

- Enpresa esleipendunak nahitaez jakinarazi beharko du kontratuaren iraunaldian zehar aurreko paragrafoan adierazitako adierazpenean emandako informazioan aldaketarik gertatzen bada.

- Lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute, zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten ala ez, zerbitzari edo zerbitzu horiek egitea aginduko zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

Betebehar horiek guztiak funtsezkoak dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. artikuluaren 1. paragrafoaren f) idatz-zatian aurreikusitako ondorioetarako.

27.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA EPAITEGI ESKUDUNAK

Kontratazio-organoak, SPKL legean aipatutako mugen barruan eta bertan adierazitako baldintzei eta ondorioei lotuta, eskumenak dauzka administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratuok deuseztatzea erabakitzeko eta deuseztatzearen ondorioak zehazteko.

Aipatutako prerrogatiben inguruan hartu beharreko erabakiak bideratzeko prozeduretan kontratistari entzunaldia eskaini behar zaio.

Nolanahi ere, tokian tokiko Autonomi Erkidegoaren Estatu Kontseiluaren pareko organo aholku-emailearen irizpena nahitaezkoa da honakoetan:

a) Interpretazioa, deuseztasuna eta ebazpena, kontratistak kontra egiten duenean.
b) Kontratuaren aldaketak, administrazio baldintza zehatzen pleguan aurreikusi bakoak. Aldaketa horien zenbatekoa, banan-banan edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorakoa bada, BEZ barik.
c) Administrazioari egindako erreklamazioak, kontratuaren zein erantzukizunetan oker egin duen arrazoituta, eskatutako kalte-ordainen zenbatekoak 50.000 eurokoak edo hortik gorakoak badira.

Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

Kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta deuseztatzeko orduan sortu daitezkeen auziak eta haien ondorioak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta bertako erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta berehala beteko dira; erabaki horiek hautazko berraztertzeko errekurtsoan aurkez daitezke eman zituen organo beraren aurrean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, hilabeteko epean edo, bestela, inpugnatu administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarrita, Jurisdikzio hori arautzen den Legean ezarritakoarekin bat, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Hala ere, interesdunak ongi irizten dion bestelako edozein errekurtso jar dezake.

Zaldibar, 2021eko ekainaren 4a

Zaldibar Elizateko Udala

gurekin euskaraz!

I. ERANSKINA

LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMEN EKONOMIKOETARAKO ERABILIKO DEN EREDUA

Nik, _____ jaunak/andreak

Helbidea:_____

PK _____., NAN zenbakia _____, telefonoa _____, e-maila _____. gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duela, bere izenean (edo _____ren ordez). Helbidea _____ PK _____, telefonoa _____, eta NAN edo IFZ (pertsona fisikoa edo juridikoa) _____)), _____ zerbitzu kontratatzeko Zaldibarko Udalak deitutako prozedura irekiaren jakinaren gainean nago eta hauxe adierazten dut:

LEHENA.- Enpresa horren izenean eta legez ordezkatzeko ahalorde orokor eta askietsia daukat, _____ notarioaren aurrean, _____(eguna), _____ protokolo zenbakia, besteak beste, ahalmen hau daukat: lizitazioetan parte hartzea. Lizitazioak: obrak, obra publikoetan emakidak, zerbitzu publikoen kudeaketa, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza, Administrazioaren hornidurak eta zerbitzuak.

BIGARRENA.- _____ zerbitzuaren kontratua esleitzeko lizitazioaren iragarkiaren berri daukadala.

HIRUGARRENA.- Administrazio Baldintza Zehatzen Pleguaren, Baldintza Teknikoen Pleguaren eta kontratua arautzen duen bestelako dokumentazioaren berri daukat eta osorik onartzen du, ezelango salbuespen barik.

LAUGARRENA.- Eskaintzan hauxe hartu dugu kontuan: fiskalitatearen, ingurumena babestearen, enpleguaren, berdintasunaren, lan-arriskuen prebentzioaren, ezinduak lan munduan zein gizartean sartzearen, ezindu kopuru jakin bat kontratatzeko betebeharraren eta ingurumena babestearen gainean indarrean dauden xedapenak.

Hori guztia kontuan hartuta, KONPROMISO HAUXE hartzen dut nire gain:

- Nire izenean edo -_____enpresaren izenean, nire gain hartzen dut:

1. LOTEA.- BASERRI-BIDEETAKO, BASO-PISTETAKO, OSPITALE ZAHARREKO, SANTAMARINAZAR GAINEKO ETA KIROLDEGI INGURUKO SASITZAK GARBITZEKO eta NEGUKO ELURTEEN ETA LEIEN OSTEAN ZALDIBARKO KALEAK ATONTZEKO ZERBITZUA

1. lotean jasotakoak horrela egingo ditut, hor zehazten diren diru-kopuruen arabera:

1) ESKAINTZA BANAKATUTA (sastrakak kentzeko eta bide-bazterrak garbitzeko zerbitzua)

Urtean 2 aldiz x 12.278 M.L./jarduketa = 24.356 M.L. landa-bideen belar-sastrakak garbitzeari buruzkoa, agiri teknikoen arabera: 24.356 m.l. x _____€/m.l. bidea = _____ €

1Santa Marina-Santruan PR-BI73 baso-pistan urtean jarduketa 1 , baso-pistan 4.800 ml sasiz garbitzea, plegu teknikoen arabera: 4.800 m.l. x _____€/m.l. pista = _____ €

Santamarinazar. Sarbidean eta basoaren zati batean urtean 1. 9.000,00 m2 sasiz garbitzea, plegu teknikoen arabera: 2 jornal. x _____€/unitatea. = _____ €

Ospitale zaharreko inguruak eta barruko aldea. Urtean 1. 200 m2 sasiz garbitzea, plegu teknikoen arabera: jornal 1 x_____€/unitatea = _____ €

Zerga-oinarria. _____ euro

BEZ: _____ euro

Eskaintzaren zenbatekoa guztira: _____ euro

2) ESKAINTZA BANAKATUTA (udal bideetan elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko zerbitzua)

Astegunetan, 4 lanaldi, makinista eta makina: 4 lanaldi x_____€/unitatea = _____ €
Jai-egunetan, lanaldi 1, makinista eta makina: 1 lanaldi x_____€/unitatea = _____ €
Astegunetan, 3 lanaldi, ibilgailua eta langilea: 3 lanaldi x_____€/unitatea = _____ €
Jai-egunetan, lanaldi 1, ibilgailua eta langilea: 1 lanaldi x_____€/unitatea = _____ €
4 Tn gatz: 4 Tn x_____€/Tn. = _____ €

Zerga-oinarria. _____ euro

BEZ: _____ euro

Eskaintzaren zenbatekoa guztira: _____ euro

Kopuruak letra eta zenbakitan adieraziko dira. Biak bat etorri ezean, beti gailenduko dira letren bidez jasotako kopuruak. Banantzeen (zerga-oinarria eta BEZ) eta guztira eskainitako prezioaren artean alderik badago, azkenari erreparatuko zaio.

- Elurra kentzeko eta/edo gatza zabaltzeko zerbitzua emateko erantzun-denbora murriztea. Murriztutako denbora: _____

  Erantzun-motaren araberako murrizketa minututan jasoko da, zenbakiz eta letraz.

2. LOTEA.- UDALERRIKO ZENBAIT TOKITAN ZUHAITZAK INAUSTEA

- 2. lotean jasotakoak horrela egingo ditut, hor zehazten diren diru-kopuruen arabera:

1- ESKAINTZA BANAKATUTA

	KOPURUA	Letra:
Zerga oinarria (BEZ barne). Eskainitako kopurua ez da 4.000,00 eurotik gorakoa izango		
BEZ (% .....):		
GUZTIRA (BEZ barne)		

Zaldibar, 2021eko _____ ren _____a

Lekua, data eta proposamen-egilearen sinadura

Zaldibar Elizateko Udala

gurekin euskaraz!

II. ERANSKINA

ASEGURU-ETXEAREN ZIURTAGIRIA

(Aseguru etxea) ..... bulegoa (udalerria) ..... IFZ zenbakia....., ...go Merkataritza Erregistroan inskribatua.

ZIURTATZEN dut:

_____.enpresa, egoitza soziala _____ (helbidea) duena, IFZ _____, erantzukizun zibileko poliza dauka kontratatuta, bere alderdi orokorrari, ustiapenari eta patronalari dagokienez.

Frankizia _____ eurokoa da Beraz, bete egiten du Zaldibarko Udalak onartutako berariazko klausula administratiboen pleguan jasotakoa eta _____ kontratu arautzen duena.

Polizan ezarritako baldintzen barruan, Zaldibarko Udala aseguratu osagarritzat jotzen da egin beharreko lanetan.

Estaldura bermatuta dago _____ zenbakiko eta _____ zenbakiko poliz(ar)en bitartez eta ordainduta daude.

_____ emana, 2021eko _____ren _____a

Aseguru etxea

Izptz.: